

## Europako kamioi-aparkalekurik onenaren saria jaso du Astigarragako Garraio Zentro Integralak



***ESPORG elkarteak, gune honek garraiolarien lan- eta bizi-baldintzetan suposatzen duen hobekuntza eta eskaintzen duen segurtasun maila gorena nabarmendu ditu, Europar Parlamentuan egin den sari-emate ekitaldian***

ESPORG, Europako Kamioientzako Aparkaleku Seguruen Elkarteak, Astigarragako Garraio Zentro Integralari (GZI Astigarraga) European Truck Parking of the Year saria eman dio, Europar Parlamentuan, Bruselan, egin duten Urteko Batzar Orokorrean. 2021eko abenduan martxan jarri zen azpiegitura honen segurtasun eta zaintza maila gorena, eta kamioilariarentzako eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea saritu ditu Europa mailako elkarte honek. Aintzane Oiarbide, Bide Azpiegituretako diputatuak nabarmendu duenez, Aldundiak sustatutako Garraio Zentro Integral hau eta Gipuzkoako errepideak, “Europa zeharkatzen duen Atlantikoko garraio-ardatz nagusiaren barruan, digitalizazio-eta segurtasun- erreferente gisa kokatzen ditu” errekonozimendu honek.

Europar Batzordeko Lurreko Garraioko Zuzendari Nagusi, Kristian Schmidt-en eskutik jaso du saria foru diputatuak. Schmidtek nabarmendu duenez, Astigarragako zentroaren “kalitatea duten aparkaleku gehiago behar ditugu Europar Batasunean, garraiolarien lanbidea erakargarriagoa izan dadin, eta,aldi berean erregai alternatiboen hornidura lurralde osoan zehar hedatzen laguntzeko azpiegitura estrategikoak direlako”. Foru diputatuarekin batera, Miguel Angel Poza, Astigarragako GZI-a kudeatzen duen EYSA Group-en ordezkaria izan da ekitaldian.



ESPOG elkartearen sari honek segurtasun, kalitate, konektibitate eta zainketa baldintza maila gorenak dituzten kamioientzako aparkaleku eta zerbitzu guneak saritzen ditu. Bidegi foru elkartearen sari honetako partaidea da; Europa osoko enpresa, garraiolariei elkarte eta erakunde publikoekin batera. Astigarragako gunearen kasuan, sari hau, instalazioak inauguratu eta urte betera etorri dena, gunea Europako garraiolarien artean ezagutzera emateko “momentu ezin hobean” datorrela azpimarratu du Oiarbidek: “Gipuzkoa Europa mailako errepide seguru, konektatu eta adimendunen artean kokatzen du Garraio Zentro Integralak”. Ekitaldian, sari honek Gipuzkoa eta Euskadi Europarekin erabat lerrokatzen dituela aipatu du foru diputatuak, azpiegitura honetan egindako 15 milioi euroko inbertsioa azpimarratuz. Jasangarritasun politiketan egindako bide aitzindaria sendotzen du errekonozimendu honek, “inbertsio hauek bidesariei esker egin daitezkeelako, lurralde guztietako garraiolariek ordaintzen dituztenak, ez soilik gipuzkoarrek”. Finean, diputatuaren arabera, “Europako herri txikien herrigintzan aritzeko erabakiak hartu dira, bai ingurumen jasangarritasunean eta baita jasangarritasun ekonomikoan ere”.

Halaber, garraiolarien sektorearentzat funtsezkoa da mota honetako zerbitzuak eskaintzea, garraiolarien bizi-kalitatea eta lan-baldintzak hobetzen duelako eta, baita ere, haiei atsedenerako leku eroso eta seguruak eskainiz, errepideak seguruagoak direlako. GZlaren instalazioek europar araudi eta prozedura zorrotzenak betetzeko dituzte, zerbitzu aurreratuekin eta segurtasun maila gorenarekin. Europar Batasuneko segurtasuneko urrezko maila ziurtatua du GZlak.

### **Gipuzkoako Garraio Zentro Integrala**

Gaur egun Europa mailan kamioiak aparkatzeko eremu seguruak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten instalazio gutxi daude, baina Europar Batasuna geroz eta zorrotzagoa da azpiegitura hauek bultzatu eta baldintzak ezartzerako orduan. Hain zuzen, ESPORG elkartearen egiteko nagusietako bat da gune hauen sustapena egitea eta Europar Batzordearen aholkularia da gai hauetan. Gipuzkoako Astigarraga-Oiartzun Garraio Zentro Integralak kamioientzako 525 plaza seguru, babestu eta konektatu eskaintzen ditu guztira (Astigarragan 341 eta Oiartzunen 184). Instalazio moderno eta seguru hauetan, jatetxe-, konektibitate- eta hornidura- zerbitzuak eta higienarako, aisialdi zein kirolerako eta garbiketarako instalazioak eskaintzen dira. Aparkalekuekin, 25.563 m<sup>2</sup> ditu azpiegitura osoak Astigarragan. Barrutiak, halaber, 930 metroko luzerako itxitura perimetral bikoitza du, eskaladaren aurkako hesiekin, 2,5 eta 3,5 metro arteko altuera aldakorarekin, Europako urrezko ziurtapenak eskatzen duena betez. Oiartzungo guneak Astigarragako aparkalekuaren ezaugarri eta zerbitzu berdinak ditu eta garraiolariek 184 plaza dituzte 16.220m<sup>2</sup>-ko azalera.

Brusela, 2023ko martxoak 1.



## El CIT de Astigarraga recibe el premio al mejor aparcamiento para camiones de Europa



***La asociación europea ESPORG ha destacado la mejora que esta infraestructura supone para la calidad de vida y trabajo de los transportistas y el alto nivel de seguridad que ofrece, en el acto celebrado en el Parlamento Europeo***

La Asociación Europea de Aparcamientos Seguros para Camiones, ESPORG, ha otorgado al Centro Integral de Transporte de Astigarraga (CIT Astigarraga) el premio European Truck Parking of the Year, en la Asamblea General Anual celebrada este miércoles en el Parlamento Europeo, Bruselas. De esta manera, se destaca y se premia el nivel de seguridad y vigilancia de esta infraestructura inaugurada en diciembre de 2021, así como la calidad de los servicios que ofrecen sus instalaciones. Un reconocimiento que, en palabras de la diputada de Infraestructuras Viarias, Aintzane Oiarbide, sitúa tanto al centro promovido por la Diputación, como a las carreteras guipuzcoanas como “referentes en digitalización y seguridad dentro del eje de transporte del Atlántico que atraviesa Europa”.

La diputada foral ha recibido el premio de manos de Kristian Schmidt, Director General de Transporte Terrestre de la Comisión Europea. Schmidt ha destacado la necesidad de la Unión Europea de más plazas de aparcamiento de calidad como las que ofrece el CIT de Astigarraga, “para que la profesión de transportista sea más atractiva, al tiempo que se ofrece una estructura estratégica en el despliegue de suministro de combustibles alternativos a lo largo del territorio europeo”. La diputada ha estado acompañada en el acto por Miguel Ángel Poza, representante de EYSA Group, empresa concesionaria del servicio del Centro Integral de Transporte.

La sociedad foral Bidegi forma parte de ESPORG junto con empresas, asociaciones de transportistas y entidades públicas de toda Europa, que conjuntamente



trabajan en el fomento de zonas de aparcamiento y servicio para camiones con los máximos niveles de seguridad, calidad, conectividad y mantenimiento. En el caso del complejo de Astigarraga, este premio, otorgado un año después de la inauguración de las instalaciones, llega en "el mejor momento" para dar a conocer esta infraestructura entre las y los transportistas europeos y sitúa al Centro Integral de Transporte y a las carreteras de nuestro territorio como referente en el ámbito de las carreteras seguras, conectadas e inteligentes a nivel europeo, según Oiarbide.

En el acto de entrega, la diputada foral ha subrayado que este premio alinea plenamente a Gipuzkoa y Euskadi con Europa, destacando la inversión de 15 millones de euros realizada en esta infraestructura por la Diputación. Este reconocimiento consolida, por lo tanto, "el camino pionero en las políticas de sostenibilidad de Gipuzkoa, ya que estas inversiones se pueden realizar gracias a los peajes, que pagan los transportistas de todos los territorios, no sólo los guipuzcoanos". En definitiva, se han tomado decisiones "para que los pequeños pueblos europeos puedan desarrollarse de una manera sostenible ambiental y económicamente".

Asimismo, para el sector de los transportistas es también fundamental contar con este tipo de servicios, ya que mejora su calidad de vida y condiciones de trabajo, ofreciéndoles lugares de descanso cómodos y seguros, aspecto que redundará igualmente en la seguridad vial. Las instalaciones del CIT están sometidas a la normativa y procedimientos europeos más estrictos, con servicios avanzados y un nivel de seguridad máximo, con el certificado de nivel de oro en materia de seguridad de la Unión Europea.

### **Centro Integral de Transporte de Gipuzkoa**

En la actualidad existen pocas instalaciones a nivel europeo que ofrezcan áreas seguras y servicios para el estacionamiento de camiones, pero la Unión Europea es cada vez más exigente a la hora de impulsar estas infraestructuras y establecer sus condiciones. De hecho, uno de los principales cometidos de ESPORG es la promoción de estos espacios y asesora a la Comisión Europea sobre estos temas. El Centro Integral del Transporte Astigarraga-Oiartzun ofrece un total de 525 plazas seguras, protegidas y conectadas para camiones (341 en Astigarraga y 184 en Oiartzun). En estas modernas y seguras instalaciones se ofrecen servicios de restauración, conectividad, abastecimiento e instalaciones de higiene, ocio y deporte y limpieza. La infraestructura completa cuenta con 25.563 m<sup>2</sup> en Astigarraga, zona de estacionamiento incluida. El recinto cuenta asimismo con un doble cierre perimetral de 930 metros de longitud, con barreras antiescalada, con una altura variable de entre 2,5 y 3,5 metros, cumpliendo con lo exigido por la certificación europea. La zona de Oiartzun tiene las mismas características y servicios que el parking de Astigarraga, y las y los transportistas disponen de 184 plazas en una superficie de 16.220 m<sup>2</sup>.

Bruselas, 1 de marzo de 2023.